

## EA-EAJk herri osorako Arau Subsidiario berriak egitea planteatzen du

■ Udalak Arau Subsidiarioei buruzko pleno berezia egingo du gaur EA-EAJk hala eskatuta. Eguerdiko 13:00etan.

GAUR pleno berezia egingo da Arau Subsidiarioak gai monografiko hartuta. Arau Subsidiarioak herriko antolaketa urbanistikoa markatzen duten legeak dira: zer ereiki, non, nola, zer baldintzatan. Arau Subsidiarioak ez dira fijoak, eta hainbestean behin berriro aztertu eta berriro egiten dira. Baina nola berriro ere planteamendu bat baino gehiago dago. Pleno askotan atera den eztabaida gaia izan da.

Gaur, EA-EAJren eskariz, Arau Subsidiarioen pleno berezia izango du udalak.

**1999-KO BERRIKUSPEN PROIEKTUA ONARTZEA**  
EA-EAJ udal taldeak gaur aurkeztuko duen mozioak azaltzen duenez, legez oraingo Arau Subsidiarioak berritzea tokatzen da. Arauen artikuluetako batek dio, Arauak derrigor erreibisatu

■ Oposizioko taldeak "Hirigintza planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspen Proiektua" onartzea proposatuko du.

egin behar direla, planifikatutako etxebizitzaren hirutik bi (930 etxe) eginak badaude, besteak beste. Rekondo buru duen udal taldearen arabera, 1999an, ordurako 1.110 etxe eginda zeuden; eta, horrek garbi erakusten du ordurako ere Arauak berriro aztertu behar zirela.

Mozioak esplikatzen duenez, 1999ko apirilean egindako plenoak onartu zituen "Hernaniko Arau Subsidiarioen berrikusketarako garatzeko oinarri eta irizpideak". Gero, hauteskundeak eta Gobernu aldaketaren ondoren, oraingo Gobernu taldeak dokumentu hura aurrera ez ateratzea erabaki zuen.

Orain, EA-EAJ-ren ustez, Gobernu taldeak Arauak zatika aldatu ditu zenbait barrutietako garapena bultzatzeko. "Baina, aldaketa horiek ez dute benetako arazoa konpondu, ez baitute osotasuneko herritas-

morik agertzen. Eta herritasmorik gabe ez dira udal barruti osorako finkatu nahi diren erizpide eta ekinbideak ezagutarazten". EA-EAJ-k gaurko plenoari eskatuko diona da 1999-ko berrikuspen hura hartzea abiapuntu.

**FRAILE: "ARI GARA ARAUAK BERRITZEN"**  
Manuel Fraile Hirigintza buruak dionez, Gobernu taldea ari da Arau Subsidiarioak aztertzen eta berritzen, eta erizpide zuzenarekin, gainera. Frailek hiru puntutan laburbildu du Udal Gobernuaren postura:

**Bat)** Udal Gobernuak 1999ko azaroan erabaki zuen *Arauen Rebisio dokumentua* ez tramitatzea, eta postura horri eutsi egiten dio; alegia, Arau Subsidiarioak ez dira berrituko EA-EAJ-k proposatutako abiapuntu hartatik. Ba-

tasunako zinegotziak dionez, proposamen horrek oinarri oinarritzko kontradikzioak ditu. Proiektu asko, (Agustinatikoa, Montesekoa, Sagastiakoa eta abar) ezin izango ziren egin lehendik aurreikusita zeuden bezala. Beraz, Fraileren ustez, Gobernu taldea egiten ari den rebisioa zuzena da.

**Bi)** Udal Gobernuak bere talde teknikoari eskatuko dio hilabetean egoera urbanistikoren diagnostia egiteko. Azterketa hori izango da hemendik aurrera berrituko diren Arauen oinarria.

**Hiru)** Hirigintza buruaren esanetan, Udal Gobernuak azalduko diela herritarrei hirigintzan zer egin duen eta aurrerako zer proiektu dituen. Dokumentu batean bilduko ditu orain artean egindakoa eta legegintzaldia bukatu bitarteko egitasmoak. □

## Zer izan dira Karobiak?

■ Karobi elkarteak antolatuta, Fermin Leizaola etnolokoak karobieiei buruzko hitzaldia emango du. Karobiak zer diren, zer garrantzi izan duten eta gainerako detaile guztiak azalduko ditu. Hitzaldia Karobi elkartearen da, asteazkenean 19:00etan.

Hitzaldia elkartearen urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldietako bat da. Ostegunean ipuinak eta txokolatada, 17:00etatik aurrera; eta ostiralean, afaria. □

## BERTSOLATA

### Bertso saio mitologikoa

BERTSOLATAN bertso saio mitologikoa egingo da asteazkenean. Xabier Amuriza, Oihane Enbeita, Amaia Agirre eta Jexux Mari Irazu arituko dira kantari, Joxerra Garzia gajartzaila dutela. Saioa Biterin da, 19:30etan. □

## Pelota ikastaroa neskentzat

■ Pelota elkarteak palaz jokatzen ikasi nahi duten neskentzat ikastaroa antolatu du. 12 urtez gorakoentzat da eta Garbiñe Tijerok emango du. Ikastaroa hiru egunetan da: asteazken, ostegun eta ostiralean. Goizeko 10:00etan kiroldegian. □

## Olentzero gaur kalez kale eta baserri baserri



Umeak Gabon kantuak abesten.

■ Aurten ere 10 talde inguru ibiliko dira kantari.

Koruak, auzoko taldeak, ikastolak, koadrilak... etxe eta portaletako tinbreak berotuko ditu gaur Olentzerok. Baita gogoratzeagatik poz ederra eman ere. Langile ikastolakoak izango dira goiztiarrenak eta 09:00-etarako hasiko dira kantuan. Urumea, Inmaculada, Elizatxo

eta Txirritako umeak ere alaituko dute eguna. Doberak 15:00etako egin du deialdia Gudarin plazan eta *Etixerat*-ek 20:00etan. Ereñotzuko taldea ere 13:30etan aterako da. Kantuz eta Parrokiko korua ere bai. Txistulariak ere hor izango dira. □

BADATOR OLENTZERO, BADATOR

ZATOZ TXIMELETARA ZURE OPARIAK AUKERATZERA  
Txirrita, 10 ☎ 943 552395 - HERNANI

expert TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

### ANEXO

Gabonetan eskeintza bereziak:  
- PANASONIC 28" telebista: 64.900 pztā  
- PANASONIC 25" telebista: 59.900 pztā

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

### Xarobe

DELICATESSEN  
sincel 1983

### Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI  
© 943 55 21 27  
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

### GOIKO ARDOAK

EL COTO

Joseba Gorostegi Goikoetxea  
Tel.943 55 05 29 - Mob. 657 77 71 46

### ZINGI-ZANGA

Jatetxea

Florida 54  
Tel:943 33 03 97  
HERNANI

• Eguneroko menua •

### JANTZIDENDA LOHER

Emakume  
Gizon eta haurrentzat

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Elkano 1, (Eliza atzekaldean)  
Tel.943 555 003 - HERNANI

### Skoda Octavia Combi 4X4

Obsesionatzen gaituzte teknologiak eta segurtasunak. MSR gurrupiletako trakzioa Haldez sistemarekin, 1700cc eta gidariaren nahiz ondokoaren aire-poltsak gaitu toki zabalak: 1.412 litrorainoko tokia eta leku zabalak bidaiariarentzat. Erakartzeko sunak: serieko osagaietan sartuak daude Cl:

### MENABI

Txingurri pasealekua 26 Herrera auzoa - Donostia Tel. 943 40 42 43



## Iñaki Loiarrek irabazi du Ehiza Txapelketa

■ Bigarren Gerardo Beraza gelditu da eta hirugarren Cristobal Barragan ■ Ehiztariek hotza, lainoa eta elurra izan zituzten ■ Sariak urtarilaren 10an banatuko dira.



Ehiztariak zamarrak ondo jantzita ibili behar izan zuten.

Atzo jokatu zen Txantxango-rrik antolatzen duen Ehiza Txapelketaren bigarren saioa. Iñaki Loiarrek 8 pieza bota eta sailkapenari buelta eman zion atzo. Bi igandeetan 11 pieza eta 1112 puntu atera ditu. Bigarren Gerardo Beraza gelditu da. Atzo 4 pieza bota zituen eta denera 1018 lortu ditu. Hirugarren, berriz, Cristobal Barragan izan da, 806 puntu aterata.

Igande honetan 4 oilagor bota dituzte. Baina, txapelketaz kanpo ehiztariak asko ari dira botatzen. Badira inguru hauetan 65 botatakoak eta aste-betean 29 ere bai.

Txantxangorrik sari bana-keta afaria urtarilean egiten du. Aurten hilaren 10an izango da, ostegunean. □

## JASOTA BEZALA

Ongintza Patronatuko auxiliarrak gara. Guk 18 urte daramazkigu lan kalendararioa hobea lortzeko borrokan, etxe honetako funtzionamenduan inongo kalte eta trabarik sortu gabe. Hori esanda, Ongintzako auxiliarrak salatu nahi dugu Imanol Beroitzen (Ongintza burua) jarrera despota, bere jokabidearekin hainbeste denborako lana dena hankaz gora bota duelako.

Era berean, gure lankide berriek gogora arazi nahi diegu gure lan egoera denboraren poderioan aldatu dela. Ez dezatela pentsa orain egiten dugun lan kalendarario hasi orduko eman zitzaizgunik.

Orain daukaguna lortzeko 18 urtetan etengabe borrokan ibili izana pribilegiatuak izatea bada, ba bai, hala izango gara. Baina, beste batzuk egin dutena zer ote da orduan? Batzuk 6 hilabete-urtebete daramakite lanean eta egin dutena

da guk geneukan lan kalendararioa lortu eta guretzat baldintza txarragokoa utzi.

Onartzen dugu bai, langile berrien lan egutegia ez zela ona; ez zaigu, ordea, konponbide egokia iruditzen langile baten egoera hobetzeko besteara kaltetu beharra. Zein den arazo horren konponbidea? Hori guk ez dakigu. Ez da izango ba etxe honetan orain arte egon diren kalendararioak ez zirela kontuan hartu lanpostu berrien kalendararioak egiterakoan? Ez ote zen errezagoa izango berria ere orain artekoetan oinarrituta egitea?

Salatzekoa eta pena izatekoa da etxean sortutako giro erre. Eta ez zaigu iruditzen gainera berriz lehengo giro hura izango dugunik. Esan zaigu egoistak garela, insolidarioak eta pribilegiatuak. Jakinekoko da konfliktu batean beti bi bertsio izaten direla eta nor berak

erabakitzen du zein sinistu; baina, gure lekuan baleude, orain kritikatzeko gaituzten askok seguruenak guk jokatu dugun bezalaxe jokatu zuten.

Ez dugu uste gure postura hain inkoherentea denik. Nahi dugun bakarra da, lortzea hainbeste urte kosta zaigun hori, defenditu, eta saiatu gainera gaur edo bihar guztiontzat izan dadin. Orain pauso bat atzera ematen badugu ez dugu sekula berriro lortuko orain daukagunik. Ez guk eta ez bestek.

Ez ote da ba errezagoa ona den hura helburu hartu eta hain ona ez den hura hobetzen joatea?\*

**Goreti Gorostegi, Mari Jose Erdozia, Gemma Aizpun, Amaia Sarrigi, Ana Goñi, Beatriz Izagirre eta Edurne Urkia. Ongintzako auxiliarrak**

\*Kronikan euskeratua.

KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA	TALDEAK	ERRUGBIA	TALDEAK
Gorengo maila	Mutriku 1 - Hernani 5	Sen. 1. maila	Hernani 18 - Gernika 11
Gazt. ohor. liga	Hernani 3 - Pasaia 1	Jubenilak	Ordizia 11 - Hernani 3
Kadet. 2 maila	Hernani-Urnieta	PELOTA	BIKOTEAK
Emak. Liga	Hernani 2 - Antoniano 1	Esk. Bina. jub.	Aurrera 22 / Irazust. - Leonet 14
WATERPOLOA	TALDEAK	Esk. Bina. jub.	Añorga 22 / Alvarez-S. Seb. 15
Eusk. H. Liga	Santurtzi 13 - Hernani 10	Esk. bina. kad.	Arrieta-Gorrot. 22 / Mundarro 5
BOLEBOLA	TALDEAK	Esk. bina. kad.	Aurrera 22 / Ezeiza-Apaolaza 8
1. Autonomika	T. Santand. - Hernani	Esk. bina. kad.	Illunpe 12 / Gurrut. - Zurutuza 22

**'Hernani 2002' Kronikaren kalendararioa, salgai 500 pztan.**

ELUR-TXORIKO MUSA
<b>Errepeskako partidak</b>
<b>ASTEAZKENA 26</b>
Sagarna I-Sagarna II / Lapazaran-Arozamena
Olano-Aramaio / Karrera-Landa
Joxan-Paco / Felix-Javi
Irigarai-Loinaz / Jokin-J. Bautista
Imaz-Valero / Joxe-Manolo
<b>OSTEGUNA 27</b>
Aitzol-Ulazia / Rek. alde - J. Bilbao
Joshan-Gerardo / Polo-Txepi
Tomasena-Larrañaga / Arraras-Pottoko
Zubeldia-XXI / Aurelio-Sanz
Usabiaga-Burugain / Ernesto-Gelis
<b>20:00etatik 22:00ak bitartean.</b>

**GZ ZARAUTZ GESTORIA**

- Aholkularitza fiskala, laborala eta kontablea
- Enpresaren sorkuntza
- Errenta aitortpena

*Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu bezero eta hernaniar guztioi.*

Elkano 9 behea - Tel.: 943 55 60 06  
Tel eta Faxes: 943 33 29 38  
E-Mail: gzarautz@logiccontrol.es  
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

**OKINDEGIA ANTZIOLA**

*Zorionak eta ondo izan jai egun hauetan.*

*Eguneroko ogirik onena!*

**ANTZIOLA AUZOA, 3**  
Tel. 943 55 17 91  
HERNANI

**brintza**

BRINTZA, S.L.

Juan de Urbieta 15  
Tel. 943 33 12 67  
Faxes: 943 33 08 92  
20.120 HERNANI

**LAN AHOLKULARITZA AHOLKULARITZA FISKALA ASEGURUAK, INBERTSIOAK**

ZORIONAK GUZTIOI.

## ERRUGBIA -EUSKAL A LIGA-

### Hernani 4garren, Gernikari 18-11 irabazi ondoren

HERNANIKO lehen taldeak lortu zuen atzo bere helburua eta 4garren bukatu du lehen itzulia. Horretarako 18-11 irabazi behar izan zion Gernikari, partidu gogor batean. Garaipen hori Hernanik jarraian lortzen duen laugarrena da.

**JUBENILEK GALDU**  
Liga erabakita uzteko aukera zuten larunbatean jubenilek, baina 11-3 galdu zuten bigarren diren Ordiziren aurka. Galtzen duten lehen partidua izan da hori, eta oraindik txapeldun izateko aukera guztiak dituzte. □

## WATERPOLOA -EUSKAL A LIGA-

### Santurtzi 13 -Hernani 10

**WATERPOLOKO A** taldeak galdu egin zuen larunbatean Santurtzin. Partidua orekatua izan zen, baina hernaniarrek hasieran izan zuten konzentrazio falta klabea izan zen. Lehen partziala 4-0 bukatu zen bizkaitarren alde. Hortik aurrera, Hernani izan zen nagusi, baina, ez partiduari buelta emateko adina. Hernanitik jokatu zutenak: Santi Bustos, Iker Mendoza, Xabi Goenaga, Josemi Sanchez, Yulen Gil, Jon Casas, J.M. Maroño (2), Mikel Etxeberria, Juan Lunbreras (7) eta Iker Bereziartua (2). □

## FUTBOLA - GORENGOEN MAILA-

### Hernanik 1-5 irabazi zion atzo Mutrikuri

**USTE** baino errazago irabazi zion atzo Hernanik Mutrikuri. Mutriku azken sailkatua da, baina hala ere hernaniarrek ez ziren konfiatu eta hasieratik partidu serioa egin zuten, eta azkenean emaitzak erakusten duen nagusitasunarekin irabazi zuten. □

## Ipuinak liburutegian

Abenduaren 26an Itziar Zubizarretak umeentzat ipuinak kon-tatuko ditu Biterin, liburutegian. Bi saio izango dira: 11:00etan 3-4 urte bitarteko umeentzat 11:30etan, 5-7 bitartekoentzat. □

## Pelota eta Mahai tenisa Latxunbe-Berrin

**ITURRITXO** auzo elkarteak, Pelota elkarteak, Mahai tenis sailak eta Kirol Patronatuak umeak pelotan eta mahai tenisean ibiltzeko bi egun antolatu dituzte. Asteazkenean pelotan ibiliko dira eta ostegunean mahai tenisean. Latxunbe-Berriko frontoian 10:00-12:00etara. □

**Zinko Enea Kioskoak,**

*Bezero eta hernaniar guztioi.*

**Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

Zinko Enea plaza - HERNANI

**DENDA ARKA**

**Eurorako presta zaituz, egin oparia zure buruari!**

Jantzi zure ordenagailua mahai praktiko eta eserleku komodo batekin.

Preziorik onenak **Arkan**.

Ezagutu **Uztari** estanteria; merkaturan bakarra da.

**ARKA DENDA -KARDABERAZ KALEA 41 ☎ 943 33 34 87-**